

Elur-kateak

Emakumearen belauna erloju-bonba bat zen. Geldirik egon baino ezin zuen egin, norbaitek eguzkitan ahaztu duen fruta pattal bihurtua, nerbio minez josia, jarri berri zioten hesgailu narrasaren azpian. Eski-pistetako erizaindegian ikusi zutenak ez zeuden ziur (ezin mediku edo erizain deitu, ez zirelako ez mediku eta ez erizain, ez eta adinez nagusi ere, itxura ororen arabera):

—Beharbada bihurridura bat baino ez da izan... edo zerbait gehiago...— sorbaldak eta bekainak jasoz sinkronian.

“Zerbait gehiago” hura nonbaitetik geratu zen zintzilik, emakumearen gaineko espazioaren punturen batetik, askatzear zegoen izotz-puska zorrotz baten moduan. Amorru handiena, istripuaren beraren epika-falta erabatekoa. Mugimendu mengel bat, pentsatu gabe egina, konfiantzaz, gorputzak mila bider egin duelako. Baina egun horretan, eskuin eskiak desertatu egin zuen, atzean geratu zen nolabait, belauna adar lehor baten moduan kraskatu zion emakumeari eta gainerakoa grabitatearen lana izan zen. Lur hotzak besoak zabal hartu zuen emakumea, inolako inbokaziotarako astirik eman gabe. Ez zen egon oihurik, kolpe lehorraren osteko isiltasuna baino ez, edozein eztarri baino ozenagoa berau. Mina etorri zen gero, harro, inork eskatu gabeko azalpenak emateko prest. Emakumea etzanda geratu zen, zeru urdin-urdinari begiratu zion eta begiak itxi baino ezin izan zituen egin, denboraren ertzak lauso.

Gizonaren ahotsa iritsi zitzaion, ez zekien noiz, baina berandu, barne-kraskaren erreplikaren gainetik:

— Ondo al zaude?

Zenbait erreskate-gertakizun ezinbesteko bezain tamalgarriren ostean, kopilotuaren eserlekuan eseri zen emakumea, soilik minak eragindakoa ez zen keinu makur batekin. Gizonak maletategia danbateko batekin itxi zuen eta emakumeari belauneko egitura guztiak dardaratu zitzaizkion, salbuespenik gabe, izu-ikaraz. Ez zioten gehiegi esan elkarri azken orduan. Hain zuzen, ez zioten gehiegi esaten elkarri bidaia baino askoz lehenagotik, baina istripuak isilune are lodiagoa zigilatu zuen bikotekideen orbitan, Pirinioetako errepideetako bihurguneek ere libratu ezin zutena.

—Prest? —galdetu zion gizonak, furgonetaren barruan, GPSa trauskil doitzen zuen bitartean.

Buruarekin baietz adierazi zion senarrari, begiratu gabe. “Prest” hitza handi geratzen zen bere egoera deskribatzeko, asmo handiegikoa zen, ezer izatekotan: senarraren txandala jantzita, ostegunetik dutxatu gabe, norbaitek oinpetik lurra erauzi ziolako sentsazioarekin, zaplazteko bidegabe bat jaso berri duenaren sorpresa sumina. “Prest hitzak aireportu batean funtzionatuko luke orain”, pentsatu zuen, “hemen ez dago aireratzetik, gainbehera baino ez”. Ez zuen min handirik, zentzu hertsian, eta egia osoa esateko, baina sentitzen zuena are okerragoa zen. Benetako minaren aurretiko mehatxu sorra, berealdiko ekaitza iragartzen duen urruneko trumoa.

Andorratik irten ziren Donostiara bidean. Sei ordu, gutxi gorabehera. Hori esaten zuen GPSak, nahiz eta gailu hark gutxi zekien belaun hanpatuek edo itopuntuan diren senar-emazteek denbora esperimentatzen duten moduaren inguruan. Pirinioak zuri-zuri zeuden, baina jada ezer ez zen ederra. Inolaz ere. Egun batzuk lehenago bizitzaren opari bat iruditu zitzaion emakumeari paisaia, elur erori berria, beirazko eskulturak ziruditen zuhaitzak, ipuinetakoen modukoak, betierean Gabonak ospatzeko prest ziruditen txokoak, baita martxo hasieran ere. Abentura ederra izan zen elur-kateak jarri behar izatea furgonetari azken tartean, ezohiko elkarlanean senar-emazteak, ia iluntzen ari zela, hondoko elur lodia purpurinaren moduan dirdirka. Orain, berriz, eskala artean ezezaguneko tragedia domestiko baten dekoratua zen guztia eta emakumeak porrot usain ustela hartu zion errepide-bazterreko elur lizunari.

Andorrrako bidaia bestelakoa izan zen oso: barreak (azken aldian ezohiko izateagatik, are ospatuagoak); ondo hautatutako musika; bazkaltzeko herri egokiaren aukeraketa, orotariko aldagaiak aintzatetsita, hala nola herriaren izenaren musikaltasuna, gose-maila eta jatetxeei norbaitek egotzitako izar-kopurua. Buelako bidaian, alajaina, katalanez idatzitako kartel haiek ohartarazpen-seinaleak ziruditen. Letra-pilaketa beltzak hondo zurian, dolu-seinaleak. Nahikoa ezagunak eta nahikoa arrotzak, aldi berean, halako moldez non biziki nahasgarri bihurtu baitziren bat-batean. Elurrak ere bazuen sarkofagotik zerbait. Aldamen batera amiltzen zen izei bat, izotz-pikorrekin estalitako harrizko horma bat, azeri disekatu aurpegia zuen laino bat. Joateko bidaian horren dotoreak ziren mendiak orain erraldoi makurrak ziren, heriotzaren eta tragediaren zaindari bidegabeak, sekretu zikinez josiak. Elurra urtzen hasia zen, dudarik gabe gogoz kontra, eta ura harkaitzen artetik iragazten zen soinu likatsu batekin. Edertasunak bazuen han sorbatz bat.

Isilik gidatu zuten, pneumatikoen zurrumurrua baino ez asfalto bustian. Seu d'Urgell inguruan, emakumeari iruditu zitzaion denbora lausotzen hasi zela, analgesiak eragindako behe-laino gozoaren ondorioz orduak elastikotasun bitxi hura hartu zutelako, itxialdi-egoerak areagotua (harrapatuta zegoen furgoneta hartan, ezkontza hartan eta modu zalapartatsuan huts egiten ari zitzaion gorputz hartan).

Lleida pasa eta pixka batera, industrialde txepel bateko taberna batean geratu ziren. Furgonetatik irteteko mugimenduek gogorarazi zioten, anker eta bihozgabe, belaunaren konfigurazioa errotik aldatua zitzaiola, flotatzen zuela gorputz-atalak modu erabat ezezagun eta mingarri batean, barne-irristaketarako espazio gehiegirekin, desplazatzekoa ez zen zerbait errukirik gabe desplazatua, zalantzarik gabe. Belauneko sentrazioak bat egin zuen nekearen pisupean kraskatu ziren plastikozko aulkiekin, tabernako argi hotzetan. Toki hari lixiba-usaina zerion, gehiegitan berotu den koipearen usaina. Emakumeak ez zuen ogitartekoa ia ukitu, inpazientzia- eta erresumin-zaporea hartu zizkion. Gizonak etsipenez mastekatu zuen, kondena bat betetzen ari balitz bezala.

—Ondo al zaude? —galdetu zion gizonak.

—Bai. Ez dut uste larria izango denik. —gezurra esan zuen emakumeak, mahai itsaskorrari begira.

Furgonetara itzuli zirenean, zerua aldatuta zegoen: laino baxuak, astunak, munduak ere ubeldura bat jasan balu bezala barne-barnean. Autobidean, bidaiarien aldartea bezalaxe ordokitu zen paisaia: soroak, industria-pabiloiak, herriak... guzti-guztia hirigile deprimituek diseinatua. Emakumeak kanpoaldean jarri zuen arreta, barrualdea jasanezin egin zitzaionean: 148. irteera, zerbitzugunea 12 km barru, jatetxeduna, abiadura-muga 120 km/h, lehentxeago

bezala, geroxeago bezala. Datutara murriztu nahi izan zuen bidaia, alferrik. Haranzko bidaia gogoratu zuen berriro. Mendian bizitzea burutik pasa zitzaion orduan, tomateak landatu, jada inork espero ez zuenean bizikletarekiko zaletasun sutsua garatu, ezkontideen artean galdu zen bidexka bihurri hura topatu beharbada... zeinen erraza zen amets egitea gorputza buruari jarraitzeko gai zenean. Buelako bidaian, alabaina, bihurgune bakoitzak jartzen zion belauna kolokan. Bideko zulo bakoitza zen traizio bat. Goragune bakoitza, egonkortasuna kinkan jartzeko potentziala zuen amarru bat.

—Eta larria bada? —galdetu zuen emakumeak ozen, eta berehala damutu zen aukera hura azaleratzeaz.

—Larria bada zer?

—Belauneko hau. Eta ez badut berriz eskiatzen? Korrika egiten? Ez banaiz berriro herren egin gabe ibiltzen?

—Ikusiko dugu —erantzun zion gizonak epel, emozio handirik gabe, ohi zuenez.

Begiak itxi zituen emakumeak: makuluak, immobilizazio-ferula, bizitzaren geografia sofara mugatua. Senarra alboan, etsita, hanka sartzea saihestu nahian (eta ez lortzen). Isildu egin ziren berriro ere. Istripuan beharbada hautsi zen beste zerbait ere, urteak zeramatzana pitzatzen. Horrek ere beharko zuen diagnostiko bat, unea iritsitakoan.

Aragoin sartu ziren. Paisaia lauak, lehorrak, zuhaitz errakitikoren bat despistatuta, hilzorian zeuden gasolindegia, norbait han ahaztuta uzteko diseinatuak. Kilometro guztietan oroigarri bat, gorputzez haratago ere bazeudela gauza hautsiak. Garabi lokartuak, eta aspermena baino hazten ez zuten soroak, zoritxarreko patuen beix kolorez tindatuak. Gizonak beste geldialdi bat

proposatu zuen. Emakumeak ezetz. Belauna ziztatzen hasi zen, erre egiten zuen, barru-barrutik, gogorarazi nahi balio bezala bere plan propioak zituela, senar-emazteen asmoak gorabehera.

—Andorrrarako bidaia nabarmen laburragoa izan zen bueltakoa baino. Poliki zoaz.

Oroitu zuen emakumeak harakoan orduak izan zirela laranjak eta bizkorrak, airean zehar jaurtitako mandarinen modukoak. Eta ez orain bezala, denbora baitzen grisa, umela eta pixka bat itsaskorra. Txikle zapaldua.

—Jakina, gogotsu zaudenean hegan joaten da denbora. —gizonak irribarre egin zuen, lehen aldiz, zenbait ordutan.

Euskal Herrira hurbiltzen hasi zirenean, zerua ilundu egin zen, horren ezagun zitzaien titanio kirurgikoaren kolorea hartzeraino. Nafarroa gurutzatzearekin, airearen usaina aldatu zen, hezeagoa, lurkaragoa. Mendiak altxa ziren berriro ere, ez hain dotoreak, dorre elektrikoek zulatuak, laino mardulez estaliak. Zirkulazioa gero eta astunagoa zen: kamioiak, autoak, kamioi gehiago, auto gehiago. Lehen euri-tantekin batera, beirak erakutsi zion, ispilu zahar bat bailitzan, paisaia bat desfiguratua, bihurritua, belauna bezain moretua. Emakumea arinki larritu zen, ixtear baitzegoen bidaia eskaini zion parentesi lurrunkor eta ulertezinki eroso, eta laster izango baitzen ospitalean, ospitaletan jasotzen diren modukoen albisteak jasotzen, ospitaletan pairatzen diren modukoen oinazeak pairatzen. Han egin beharko zion aurre etortzeko zenaren lehen urratsari. Susmoa zuen furgoneta horretan bizitzen ari zena itxialdi ugaritako lehena izango zela. Furgonetari bat-batean anestesia-usain gozoa hartu zion, entzun nahi ez diren hitz isilarazien zaporea. Egia gordin batetik babesten zuen burbuila lehertzeaz zegoen. Emakumeak

une batez nahi izan zuen parentesi hura ez zedila inoiz itxi, bidaiak iraun zezala betierean, luza zedila gelaurrea.

Donostiara sartu zirenean, zerua (eta zorua eta zoria) zen arrisku likido hutsa. Hondoan, itsasoa urdin baino beltzago zegoen. Tantekek erritmo irregularrean kolpatzen zuten furgonetaren haizetakoa, euriak ere zalantza egingo balu bezala, jaitsi ala ez, jaistekotan ere zenbat jaitsi, ziurtasun oro galduta. Etxerako bidea hartu beharrean, larrialdietarako bidea hartu zuten ezinbestean. Ospitaleak bereizgarri zituen argi hotzekin eta errotulu urdinekin eman zien ongietorria. Desinfektatzailearen usainak beldurraren antz handiegia zuen.

Furgonetatik irtetean, emakumearen artikulazioa erabat zurrunduta zegoen, bidaia luzea eta gero. Saiatu zen ezkutatzen ibiltzeko zituen komeri monumentalak, arrakasta gutxirekin (eta arrastaka askorekin). Senarraren besoari heldu zion, baina ez gehiegi, gizonaren beso makalak eutsiko ote zuen konfiantza-faltarekin bat-batean lotsatuta. Itxaron-gelara iritsi zirenean, pareko hormari begira geratu zen une batez, eta martxo hasierako larunbat arratsalde bateko traumatologiako gainerako larrialdien errepasoa egin zuen gero: artean futbol-ekipamendua jantzita zuen nerabe bat, hanka gora; kopetan kolpe itzela hartutako agurea; eta han egoteko ageriko arrazoirik ez zuten beste zenbait, egoerak eskatzen zuena baino berriketarako gogo handiagoarekin. Emakumea modu ulergaitzean amorrarazi zuten azken horiek (haiexek ziren ugarietak). Min ematen zion belaunak, baina are min gehiagoa ematen zioten itxaroten emango zuen denboraren muga jasanezinek.

Halako batean, etorkizunak eta iraganak bat egin zuten zorioneko uneetako batean, erizain bat sartu zen itxaron-gelan, eskuan zerrenda bat zeramala. Emakumearen izena esan zuen (abizena gaizki, aitzakiarik gabe). Emakumea altxatzen saiatu zen baina huts egin zion

belaunak. Planto. Kale egin zion modu katastrofikoan, itsasontzi bat hondoratzen den moduan, tximista batek erdibitutako zuhaitz baten moduan. Emakumeak begiak itxi zituen eta berriro saiatu zen, hanka lurrean bermatu gabe harako hartan. Malko batek ihes egin zion senarrak begiratu zion une zehatzean. Jagole bat jariatu zen zirrikituren batetik eta gurpil-aulki batean eserarazi zuen. Aulkiaren gainazalak emakumea erre zuen, ukitzen zuen puntu guztietan kiskali. Egunekeo bigarren malkoa isuri zuen, lehen malkotik segundo gutxira, jagoleak kontsultara eramaten zuen bitartean, senarra itxaron-gelan utzita. Iragarpen ilun bat sumatu zion emakumeak korridoreko aire zitalari: “zerbait hautsi da eta ezin da konpondu”. Emakumeak ez zuen atzera begiratu.